



Mainer Oleaga zuzendaria.

PABLO GÓMEZ

Muga deitzen da pausoa

Bilaketa bikoitza etxearen barrunbeetan

IRENE ELORZA

Mainer Oleagak Mexikotik Donostia-ra bizitzera etorri zenean egin zuen topo *Muga deitzen da pausoa* filmaren ardatza izango zen istorioarekin. Alde Zaharrean alokatu zuen bizitoki berriak istorio bat zuen zain: Elbira Zipitria Irastortza 'Ira' (1906-1982) bertan bizi izan zen hirurogei urtez, eta etxe hartan antolatu zuen umeak eta helduak euskaraz alfabetatzeko eskola klandestina, frankismo garaian. Misterioz betetako pertsonaia bat aurkitu zuen, eta berari buruzko informazio gutxi zegoenez, ikerketa ekin zion.

Patxadaz joateko tarte hartu eta ikerketa prozesuaz gozatu egin zuen Oleagak. 'Ira'-ren bizitza eta bere garaiko testuingurua ezagutzeko ezinbestekoa egiten zitzaion eta hiru urte eman zituen horretan. Gerora heldu

zen irudietan pentsatzeko denbora. Ilkumira Berriak programaren lehen deialdian aukeratu izan zen egitasmoa eta asmoa eremu pribatutik publikora igaro bezain pronto, kamera hartzen hasi zen eta errodaje talde txiki bat osatu zuen filma garatzeko. "Niretzako zaila zen kontatzeko modua irudikatzea", azaldu du Oleagak, "istorioa etxe barruan aurkitu nuen, horrek filma leku konkretu batean kokatzen zuen". Biografiaren edukia forma egokia ematea izan zen erronka nagusia: "Hasieratik, bilaketa ez da izan bakarrik Elbira Zipitria zein zen ulertzearena; filma nola egingo nuen ulertzeko eta pixkanaka gidoia eta filma sortzeko bilaketa ere izan da".

'Ira' protagonista emakume zintzoa eta egiazalea izanda, berarekiko lotura eta errespetua adierazteko zintzotasuna bilatu zuen Mainer Oleagak hasieratik. Hori dela eta, enkoadraketa

gurutatu eta bien arteko harremana irudikatze protagonista bihurtu zen zinemagilea. Harreman eta bizi-pen sakon horien destilazioa da filma. Egilearen presentzia Elbira Zipitriaren ausentziaren aurrean jartzen da. Prozesuan, osagai gutxi batzuk izan ditu lagungarri: ahotsa, proiektzioak, argia, etxeko objektuak...

Hirugarren protagonista, nola ez, etxea da. Emakumea espazio pribatuetara mugatuta zegoen garai batean, Elbira Zipitria arau urratzailea izan zen eta bere espazio pribatua -etxea- publiko bihurtu zuen. Egun, zinema aretoetara jauzi egin du bere istorioak. "Zinemaldian gure zinema ospatzeko modua da Zinemira saila, eta bertan egongo naiz Elbirarekin", esan du zinemagile bilbotarrak, "badakit bera oso pozik egongo zela, Elbirak merezi du eta ni oso pozik nago horregatik".

Paseko txoriak

Azken agurra etxeko zinemagile engaiatuari

I.E.

Juanmi Gutiérrez ohiko presentzia izan da Zinemaldian azken urteetan. Erreteriarra hamaika aldiz izan da bere ekoizpenak Donostian aurkezten, azkenekoz iaz, *Baúles* filmarekin. Gainera, 1979an Zinemaldiko hautaketa batzordeko kidea izan zen, eta betidanik, zinema-jaialdia-aren ikusle gogotsua izan da. Zinemagile erreteriarra otsailean hil zen, eta hil baino hamar egun lehenago bukatu zuen *Paseko txoriak* film dokumentala.

Zinemira sailean ikusgai dagoen filma Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatu zen, joan den apirilean; izan ere, zinemagileak gizarte gaiak lantzeko interes berezia izan zuen bere ibilbide osoan zehar. Dokumentala lehiaketatik kanpo proiektatzen ari da egun hauetan. Atzo, leporaino betetako Principe aretoan egin zen aurkezpena omenaldi hunkigarria bilakatu zen, Pello Gutierrez semea eta Kany Peñalba emaztearen eskutik. "Juanmiren benetako azken

filma da hau, bere agurrekoa", esan zuen Peñalbak.

Paseko txoriak egitasmoa iazko udan hasi zitzaion ernatzen Gutiérrezi, Afrikatik zetozen etorkin taldeak Irungo tren-geltokira iristen hasi zirenean. Santiago zubia zeharkatu nahi duten errefuxiatuengana hurbildu zen Gutiérrez eta haiek bihurtu zituen protagonista. "Hiru hilabetetan osatu zuen lana, inoiz baino azkarrago, bai baitzekien ur-jentziatzko egoera bat zela", azaldu zuen egilearen semeak.

Eskualdeko mugimendu okupak eta Irungo Herrera Sarea bezalako elkarteak izan ziren egoera honen aurrean lehenengoak erreazionatzen eta elkartasun sare bat osatzen. Errefuxiatuei laguntzeko antolatuta dauden Irungo (Gipuzkoa) eta Hendaia (Lapurdi) herritarren sareak ere gertutik ezagutzeko aukera ematen du lanak. Batzuei zein besteei aurpegia jarri, ahotsa eman eta euren bizi-kontakizunetan sakondu zuen zuzendariak dokumentala osatzen zuen neurrian.



Kany Peñalba eta Pello Gutiérrez, atzoko emanaldian.

GARI GARAIALDE

ELÍAS QUEREJETA ZINE ESKOLA

info@zine-eskola.eus | www.zine-eskola.eus

Zinemaren hiru aldien eskola

Ikerkuntza, berrikuntza pedagogikoa eta esperimentazio zinematografikorako nazioarteko zentroa

GRADUONDOKO IKASKETAK

Artxiboa
Komisariatza
Sorkuntza

La escuela de los tres tiempos del cine

Centro internacional de investigación, innovación pedagógica y experimentación cinematográfica

ESTUDIOS DE POSTGRADO

Archivo
Comisariado
Creación

The school of the three tenses of cinema

International centre for research, educational innovation and film experimentation

POSTGRADUATE STUDIES

Film Preservation
Film Curating
Filmmaking

Erakunde honek sortua eta finantzatua
Creada y financiada por
Created and funded by



Erakunde hauen parte-hartzearekin
Con la participación de
With the participation of

